

**BALANTZEA** **2008**

Guggenheim **BILBAO**

## **950.000 PERTSONATIK GORA ETORRI ZIREN GUGGENHEIM BILBAO MUSEORA 2008. URTEAN**

**Euskal Autonomia Erkidegotik etorritako bisitarien kopurua % 4 handitu da aurreko urtearekin konparatuz gero**

**950.000 bisitari baino gehiago, hezkuntza-jardueretan 472.809 parte-hartzaile, Museoaren Lagunak 16.000 baino gehiago dira; Kide Korporatiboen egitaraua osatzen dute 146 enpresa eta erakundek, eta baliabide propioek % 65 hartzen dute. Datu horiekin, Guggenheim Bilbao Museoak nazioarteko museoaren esparruan duen tokia sendotu du.**

Guggenheim Bilbao Museoak balantze positiboarekin itxi du 2008. urtea, eta jarduera-esparru guztietan espero ziren itzaropenak bete dira ekitaldi honetan. **951.369** bisitari izan dira 2008an, aurreko urtean (Museoaren hamargarren urteurrenean) baino apur bat gutxiago. Pasa den azaroan Museoak 11 milioigarren bisitaria hartu zuen, eta hala, urtean milioi inguru bisitari kopuruarekin finkatu da.

Pasa den ekitaldian Museoko hezkuntza-programetako onuradunen kopuruak gora egin zuen zazpigarren urtez jarraian, eta **472.809 izatera iritsi ziren, hau da, 2007an baino % 4,19 gehiago**. Bereziki nabarmendu da 2008an zehar hezkuntza-programetan parte hartu duten ikasleen kopurua (aurreko ekitaldian baino % 13,83 gehiago); horien artean % 47,3 EAEtik kanpoko ikasleak izan ziren, hein handi batean frantsesak (% 20,14).

Guggenheim Bilbao Museoko Banakako Kideak aurreko Estatu handiena da eta Europako handienetakoa, **16.029 Lagun** baitira, eta kopuru hori handituz doa etengabe 1997tik. Nabarmentzekoa da, gainera, erakundearekiko fideltasuna. Izan ere, berritzeen batez besteko indizea % 88,67 baita.

**Kide Korporatiboen egitarauan gaur egun 146 korporaziok parte hartzen dute. Hortaz, hamaika urteren ondoren inguruko enpresek erakunde honi emandako laguntzak irrimantendu dira.** Eta 2008an zehar bederatzi enpresek bat egin dute Kide Korporatiboen egitarauarekin.


Autofinantzaketari dagokionean Europako erakunde kulturalen buruan kokatu da Guggenheim Bilbao Museoa. 2008an lortutako indizea % 65 ingurukoa da.

Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskadiko ekonomian duten eragina 230 milioi euro ingurukoa izan da 2008an. Erakundeko bisitarien egindako gastuen eraginez 210 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin da BPGan eta Euskal Ogasunek 28 milioi euroko diru-sarrera gehigarriak izan dituzte. Honekin, 4.196 enplegu mantendu ahal izan dira urte honetan.

## BISITARIAK

**951.369 bisitari** izan ziren Museoan 2008an zehar, aurreko urtean baino **% 5 gutxiago**. Horrela, guztira 11 milioi baino bisitari gehiago jaso ditu Museoak 1997an inauguratu zenetik, eta batez beste urtean milioi bat bisitari izaten da.



Urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean hilero dauden bisitari-kopurua



Bisitarien jatorriari dagokionean, 2008ko berrietasun nabarmenena EAeko bisitarien gorakada izan da: % 10 hazi da (% 6 izan zen 2007an) eta % 7 bizkaitarrak dira.

Aurten bisitari atzerritarren kopuruak apur bat behera egin du, % 66 (2007an % 67 izan ziren). Horien artean frantsesak dira gehienak (% 20); % 7 alemaniarrak dira, % 9 ingelesak, % 6 estatubatuarrek eta % 6 italiarrak. Azken urteotan bisitari atzerritarren kopuru handi horrek Museoak EAEn biziberritzean eta ekonomian izan duen eragina islatzen du.

**Bisitarien ehunekoak, jatorriaren arabera, 2008ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean**



## HEZKUNTZA JARDUERAK

2008. urtean zehar 472.809 pertonek parte hartu dute Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako berrogeita hamar hezkuntza-jardueretaren batean: hezitzaileak, haurrak, senitartekoak, gazteak, Lagunak, gizarte-bazterketa jasaten duten taldeetakoak, etab. Kopuru horren arabera % 4,19 hazkundera izan da 2007arekiko, eta Guggenheim Bilbao Museoa EAEko jardura kulturalaren dinamizazioan geroz eta garrantzi handiagoa duela adierazten du.

2008an zehar 35.327 ikasle baino gehiago (horien artean % 47,3 EAEtik kanpokoak dira eta % 20,14 Frantziakoak) eta 20.802 hezitzaile izan dira taldeei zuzendutako eta BBKk babestutako 20 hezkuntza-programen onuradunak. Hamaika urte hauetan zehar 297.049 ikaslek eta 130.994 hezitzailek parte hartu dute beraz.

Aurten Guggenheim Bilbao Museoa Irakasleen Wikia abian jarri du, arteari buruzko on line foroak: irakasleekiko konpromisoa indartu eta nazioarteko izaera eman zaio. Mundu osoko museoaren artean ekimen hau aitzindaria da, eta hezitzaileen artean informazioa trukatzeko eta irakasleen parte-hartzea sustatzeko asmoz sortutakoa da. Irakasleen Wikiaz gain, webguneko familientzako atalean baliabide didaktiko berriak gehitu dira, bereziki *Artea ikasbide* eta *Altzairuaren laborategia* (Richard Serra-ren *Denboraren Materia* artelana haurrei azaltzeko interaktiboa) programak.

Bestalde, 359.253 pertsonak parte hartu dute 2008an zehar publiko orokorarentzat eta Museoaren Lagunentzat antolatutako 20 hezkuntza-jardueretan. Nabarmenezkoak izan dira: *In Transit: 300 urteko artea AEBn*, nazioarteko artearen esparruan Estatu Batuetako arteak duen eraginari buruzko sinposioa, oso pertsona ospetsuek parte hartu zuten bertan, besteak beste Susan Davidson, Sheldon Nodelman, Alexander Nemerov eta David Lubin-ek; maiatzean Taiwaneko Cloud Gate Dance Theatre dantza-konpainiak Entzugelan eskaini zuen sormen-prozesua; Espainiako modaren munduan oso ospetsua eta diziplina anitzeko artista den David Delfín-ek ekainean egindako desfile/ekintza; *Artearen historia guztiak: Vienako Kunsthistorisches Museum-a* erakusketa dela medio Wilfried Seipel eta Francisco Calvo-k Guggenheim Bilbao Museoa urrian emandako hitzaldiak; edo abenduaren 23an Ara Malikian biolin-jotzaileak Vivaldiren *Lau urtaroei* buruz haurrei eskainitako musika-tailerra. Azkenik, azpimarratzekoa da Guggenheim Bilbao Museoa urrian abian jarri zuen gaueko *Art After Dark* programa berezia: Estatuko edo nazioarteko ospe handiko DJek saioak eskaintzen dituzte Atrioan hilabete bakoitzeko ostiral batean.

Gainera, Museoa konpromisoa hartu du bisitari guztiei artea interpretatu eta hurbiltzeko tresna egokiagoak errazteko. Hala, didaktika guneak, entzuteko gidak eta *Guggenheim Bilbao* aldizkaria eskaintzen die haiei guztiei. Zentzu horretan, 269.316 pertsonak bisitatu dituzte 2007an izan diren erakusketen inguruan diseinatutako lau didaktika guneak, bertako programazio artistikoa hobeto ulertzeko.

Amaitzeko, ikas-ekinezko praktika-programa abian jarri genuenetik, 1997 eta 2008 urte bitartean 730 ikaslek izan dute lan-ingurunearekin lehen aldiz harremanetan jartzeko aukera.

## GARAPENA

### Banakako Kideak

2008ko abenduaren 31n, Guggenheim Bilbao Museoak **16.029 Lagun** ditu, Estatuan den mota honetako kolektiborik ugariena da, eta Europa osoko handienetako bat. Lagunek Museoari erakutsi dioten babesaren eta leialtasunaren erakusgarri dugu kolektibo honek izan duen berritze-portzentajea, % 88,67koa, baita Guggenheim Bilbao Museoak antolatzen dituen hezkuntza-jardueretan (hitzaldiak, tailerrak, zinema-zikloak, bidaiak eta bisitaldi kulturalak, etab.) haiek duten partaidetza-maila handia ere.

### Kide korporatiboak

Urtearen amaieran Kide Korporatiboen Programak 146 kide zituen guztira. Museoaren kudeaketarako organo nagusia den Patronatua gogara berritu da 2008an, eta beraz, erakundeak enpresen esferan duen sostengu garrantzitsua finkatu da.

SURNE, Construcciones Navales del Norte, Caja Navarra, Intel Corporation, Lomsa, Montegrappa Italia, Conecta, Aon eta Best Western Hotel Conde Duque 2008an zehar Museoaren Kide Korporatiboen egitarauarekin bat egin duten enpresak.

	Kideak guztira
Babesle Estrategikoak	4
Babesleak	28
Enpresa eta Hedabide Ongileak	30
Enpresa Elkartekideak	84
GUZTIRA	146

## ERAGIN EKONOMIKOA

2008. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak EAEko ekonomian izan duten eragin ekonomikoari buruzko azterlanaren ondorio nagusi gisa alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- 2008an Museoaren jardunak Euskadin sortutako guztizko gastu zuzena **231.788.989** eurokoa izan zen, bisitari bakoitzeko 243,64 euroko batez besteko gastua adieraziz.
- 2008an Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak 210.072.873 euroko aberastasuna sortu zuen BPGan.
- Jarduera ekonomiko honek eraginda 28.609.825 milioi euroko sarrera gehigarriak izan dituzte Euskal Ogasun Publikoek
- Jarduera honek 4.196 enplegu mantentzen lagundu du

## PROGRAMAZIO ARTISTIKOA

**Bilduma Iraunkorraren hiru aurkezpenek eta aldi baterako lau erakusketek osatu dute Museok 2008an izan duen programazio artistikoa.**

Pasa den apirilean inauguratu zen 2008ko Bilduma Iraunkorraren lehenengo aurkezpena, *Instalazioak: Guggenheim Bildumen aukeraketak*; Guggenheimeko bildumen funtsak ezagutaraziko dituen erakusketa da, eta kasu honetan datorren otsailaren 8ra arte instalazioen alorrean nazioarteko lau ordezkari lanak ikusi ahal izango dira: Rirkrit Tiravanija, Matthew Ritchie, Javier Pérez eta David Altmejd. Zazpi hilabetetan zehar, maiatzaren 7tik abenduaren 22ra arte, Rirkrit Tiravanija (1961) artistaren *Titulurik gabea 2002 (hark zin egin zuen)* [Untitled 2002 (he promised)] lana oso jarduera-mota ezberdinak hartzen dituen plataforma izan da, eta Museoko bisitariak ere parte hartu ahal izan dute. Euskal Herriko 30 elkarte inguruk (emakumeak, etorkinak, hirugarren adinekoak, etab.) piezaren inguruan eta barruan hitzaldiak, yoga-ikastaroak, Tai Chi, sabel-dantza, etab. antolatu dituzte.

Gainera, Museoko bisitariak “mundu guztiarentzat mezua” grabatzeko aukera eman zitzaizen hilabete horietan. Naziotasun ezberdinetako 129 pertsonak grabatu zituzten testigantzak, eta Museoaren webgunean kontsulta daitezke. Azkenik, bost musika-taldek zuzenean jo zuten obran bertan, eta Bilbao Arte-ren laguntzarekin indarra hartzen ari diren bost artistek parte hartu zuten *Open Studio*, obraren inguruko ekintza artistikoak garatuz.

Hilabete bat beranduago aurkeztu zen *Borderline*, Guggenheim Museoetako Bilduma Iraunkorreko lan minimalisten eta postminimalisten hautaketa. Erakusketa hori Carl André, Robert Mangold, Agnes Martin, Robert Ryman eta Richard Serra artista amerikarren zortzi pintura eta eskultura batek osatu zuten, eta 445.638 pertsonak bisitatu zuten.

Azkenik, Museok irailean aurkeztu zuen *Laborategiak. Bilduma Iraunkorrari begira* ekimenaren hirugarren saioa, kasu honetan Valentziako Miquel Navarro (Mislata, 1945) artistaren *Zure mundua, zure hiria* (2003) lan didaktikoaren inguruan. Lan hori Museoko Bilduma Propioan sartuta dago 2003tik.

2008. urtean zehar aldi baterako lau erakusketa aurkeztu ziren Museoan eta publikoan nahiz kritikan arrakasta handia izan zuten. Londreseko Victoria and Albert Museum-ek antolatu eta Guggenheim Bilbao Museoak koproduzitutako *Surrealismoaren gauzak* erakusketa otsailean inauguratu zen. Erakusketa horretan, mugimendu honek diseinuaren mundu zabalean izan duen eragina aztertzen da bere protagonista nagusien 231 lanen bidez: Salvador Dalí, Joan Miró, Giorgio de Chirico, Max Ernst, etab. BBVAk babestutako erakusketa honek 575.503 bisitari izan zituen eta kritikak goiraipatu egin zuen.

“*Mugimendu surrealisten imajinazioa, objektu eta eszenografiatan irudikatzen duen erakusketa paregabea*” (EPS); “*Surrealismoaren unibertsoari buruzko hain erakusketa biribilik ez da inoiz egin*” (El Correo).



Guggenheim Bilbao Museoaren laguntzarekin Londreseko Tate Modern museoak antolatutako atzera begirako *Juan Muñoz* erakusketa aurkeztu zen maiatzean, artista madrildar honi buruz Espainian egin den erakusketarik garrantzitsuenaren. Bere ibilbideko lanik garrantzizkoenak hartzen ditu: eskulturak, instalazioak, marrazkiak, irrati-lanak eta idazkiak. 429.685 pertsonak bisitatu zuten.

*Artearen historia guztiak: Vienako Kunsthistorisches Museum-a* erakusketa izan da mundu osoko museo historiko garrantzitsuenetako baten funtsei buruz egin den lehen erakusketa, osoena eta berritzaileena. 2008ko urrian inauguratu zen eta urtarrilaren 18ra arte luzatuko da. Erakusketa honen babeslea Iberdrola da eta Egipto eta Antzinate Klasikotik XVIII. mendera arteko 197 lan biltzen ditu. Kritikan nahiz publikoan arrakasta handia izan zuen (232.687 bisitari abenduaren 31ra arte).

“*Europako museo ederrenetako batek munduko erakusketa ederrenetako bat hartzen duenean*” (Arts Magazine), “*Ezinbestekoa*” (ABCD); “*Erakusketa zoragarria*” (Lápiz).

Data berean Guggenheim Bilbao Museoak *Cy Twombly* inauguratu zuen, XX. mendearen bigarren erdian eta XXI. mendearen hasieran eragin handia izan duen artista bati buruz Espainian egin den erakusketa monografikorik garrantzitsuenetako. Erakusketa hau antolatzen Londreseko Tate Modern museoak lagundu du. Guztira 83 lan dira, pinturak, eskulturak eta marrazkiak, eta arreta berezia jarri zaie artistak bere ibilbidean zehar garatutako gaikako serieei. Datorren otsailaren 15a arte bisitatu ahal izango da baina 2008an zehar dagoeneko 165.882 pertsonak gozatu ahal izan dute erakusketa honekin.

“*Erakusketa lilugarria*” (Time), “*Twombly-ren poetika plastikoarekin modu hobezinean harmonizatzen duen ibilbidea*” (El Correo); “*Guggenheimeko espazioetara oso gutxitan bezala egokitzen den erakusketa bikaina*” (ABCD).

	Hasierako data	Amaiera	Bisitariak (2008/12/31 arte)
<b>Bilduma Iraunkorra</b>			
<i>Instalazioak: Guggenheim Bildumen aukeraketak</i>	2008/04/29	2009/02/08	726.659
<i>Borderline</i>	2008/05/20	2008/10/05	445.638
<i>Laborategiak. Bilduma Iraunkorrari begira: Miquel Navarro</i>	2008/09/16	2009/01/11	261.891
<b>Aldi baterako Erakusketak</b>	Hasierako data	Amaiera	Bisitariak (31/12/07 arte)
<i>Surrealismoaren gauzak</i>	2008/02/29	2008/09/07	575.503
<i>Juan Muñoz: atzera begirakoa</i>	2008/05/27	2008/10/05	429.685
<i>Artearen historia guztiak: Vienako Kunsthistorisches Museum-a</i>	2008/10/03	2008/01/18	232.687
<i>Cy Twombly</i>	2008/10/28	2009/02/15	165.882

## 2008AN ESKURATUTAKO ARTELANAK

Bilboko Arte Moderno eta Garaikideko Museoaren Sozietate Edukiztaileak Euskal Herriko edo Euskal Herrian prestatutako hamabi artisten lanak eskuratu zituen 2008an. Lan horiek *Chacun à son goût* erakusketa osatu zuten 2007an, eta Museoko espazioekin elkarreragiten zuten lan espezifikoak ziren. Horretarako, gaur egungo baliabide eta hitzak erabili zituzten: argazkigintza, bideoa, *performancea* edo instalazioa. Eskuratutako lanek nortasun kulturalari, sexuen arteko aldeari, artearen botereari edo indarkeria politikoari buruzko hausnarketa esanguratsuak proposatzen dituzte.

Eskuratze hauen helburua Guggenheim Bilbao Museoko Bilduma Propioa zabaltzea da, beti ere sormen-ibilbide sendoa eta nazioartean proiektio nabarmena duten sortzaileen lanekin.

Hauetako dira eskuratutako lanak: *Flâneuses-en dantza (La danse des flâneuses)*, Elsie Ansareo (2007); Zerumugak (*Horizontes*), Ibon Aranberri (2001 - 2007); Guztiz xarmangarria (Irresistiblement bonito), Manu Arregui (2007); Titulurik gabea, Madril. *Carabanchelgo kartzela. Sartzeko fitxaren argazkietarako atzealdea. (Sin título, Madrid. Cárcel de Carabanchel. Fondo para las fotografías de las fichas de ingreso)*, Clemente Bernad (1998); *Azken joeren 130.000 urte (130.000 años de últimas tendencias)*, Abigail Lazkoz (2007); *AdosAdos*, Maider López (2007); *Nom de guerre*, Asier Mendizábal (2007); *Argi-hormak 011 (Muros de luz 011)*, Aitor Ortiz (2005); *Irrintzi*, Itziar Okariz (2007); *Instalazio bihurtutako proiektua (Proyecto convertido en instalación)*, Juan Pérez Agirregoikoa (2007); *Diedroen segida (Secuencia de diedros)*, Sergio Prego (2007); *Desagertzearen poetika (Poétique de la disparition)*, Ixone Sádaba (2006).

Honela, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumen funtsak aberastu eta osatu egiten dira baliabide berriekin —argazkiak eta bideoak—, gaur-gaurko arte-sorkuntzaren joerak jorratzen dituzten azken ikerketa dokumental, kontzeptual eta kokapen espezifikoaren ildoetatik joz. Eskurapen hauen guztizkoa 444.222,89 eurokoa da.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketing Zuzendariordetza  
Tf: +34 94 4359008  
Faxa: +34 94 4359059  
Posta elekt.: [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)